



ZAINTZA TOKIEDER

Arautegia

Definizioa

“Zaintza Tokieder” familiei eskeinitako zerbitzua da. Gurasoen lan ordutegia eta hauren eskola ordutegiak bat datozenerako sortutako irtenbide bat da, aita/ ama edo tutore legalen lan- familia kontziliazioa lortzeko.

Helburuak

Lan arrazoiengatik, seme-alabak eskolan ohiko ordutegia baino lehenago utzi beharra daukaten familiei zerbitzu bat eskeintzea.

Egutegia

Zerbitzuak egutegiko eskola-egun guztietan izango du jarduera.

Ordutegia

8:15-tik 9:30etara sarrera librea izango da. Familiaren beharren arabera, haurrak pixkanaka sartzen joango dira.

Funtzionamendua

Goizeko “Zaintza Tokieder” zerbitzua, Jostari S.L enpresak antolatzen du. Enpresa honek, begiraleak eta koordinatzailea ekartzeaz arduratzen da. Azkeneko honek, zerbitzuaren kudeaketa eramango du.

Hiru talde antolatzen dira:

- 1go taldea: HH 2 urte:
- 2. Taldea: HH 3, 4 eta 5 urte
- 3. Taldea: Lehen Hezkuntza

Ikasle/begirale kopurua hurrengoak izango da:

- HH 2 urte: 10 haur/begirale
- HH 3, 4, 5 urte: 12 haur/begirale
- LH: 15 haur/begirale



Arauk

Familia bakoitzak dagokion fitxa bete beharko du, telefonoekin eta kasu bakoitzean begiraleek kontutan izan beharreko oharrekin (alergiak,) fitxa www.jostari.com orrian egongo da eskuragarri.

Haurra gaixorik badago edo beste ikasleak kutsatzeko arriskua egonda, ezin da ekarri.

Seme-alabak zerbitzuan izanda, eta honen funtzionamendu zuzen baterako, gurasoek beharrezkoa den guztian konprometitu eta lagundu beharko dute. Batzorde bat sortuko da eta batzorde honen helburua zerbitzua ikuskatzea eta ebaluatzea izango da. Guraso erabiltzaile guztiek osatuko dute eta erantzunkizuna txandakakoa izango da.

Arauen ez betetzeak edo beste ikasle edo begiraleekiko errespetu faltak, falta bat suposatuko du. Honen larritasuna eta dagokion zigorra koordinatzaileak erabakiko du, ikaslearen gurasoekin hitzegin eta gero.

Hiru ekintza hauek: Zaintza/ Jantoki/ Extraeskolarrak, ezin dira hirurak bateratu, gehienez haurrak hauetariko bi ekintzetan eman dezakete izena. Araua betetzeko erantzunkizuna, guraso edota tutorearena izango da.

Zerbitzu motak eta Ordaintzeko moduak

1.-Ordainketa modua:

- a) Kreditu-txartelarekin egingo dira Jostari Servicios Culturales y Deportivos S.L. web orrialdean aurki daitekeen formularioaren bidez.
- b) Ordainketak zaintza zerbitzua **erabili baino lehen egin behar dira.**

Urteko lehenengo ordainketan, 3 euro gehituko dira materiala erosteko (margoak, plastilina, baloiak...), urtean zehar erabiltzeko.



OHAR GARRANTZITSUA:

- Zaintza zerbitzua erabili baino lehen ordaindu behar da.
- Salbuespen gisa, arazo tekniko bat dela ezin bada ordainketa on-line egin kreditu txartelaren bidez, izena egun horretan eman beharko da zerbitzuaren koordinatzaileak eskura jarriko duen fitxaren bidez.
- Zerbitzuko erabiltzaile batek bolada baten zaintza ez erabili arren, kuota ordaindu badu, ez da ordaindutako dirua itzuliko.
- 2 eta 3 urteko haur berriek urritik aurrera eman dezakete izena, egokitzapen aldia eta gero.

2.-Zerbitzu motak:

- **Egunekoa:** noizean behin zaintza zerbitzua erabiliko dutenentzat (6 €/eguna)
- **Astekoa:** zaintza zerbitzua aste solteak erabiliko dutenentzat (19 €/astea)
- **Hilabetekoa:** zaintza zerbitzua hilabete osoa zaintza zerbitzua erabiliko dutenentzat (60 €/hilabetea)
- **Bi hilabetekoa:** zaintza zerbitzua 2 hilabete ordaindu nahi izanez gero (116 €/ 2 hilabete)

Urtero, ikasturte horretako kuotak erabakiko dira, eta hauetan, giza ardurarako aseguru barne dago.